Eta haurraren faktoreei dagokienez, kontuan hartu behar dira izaera, desgaitasun baten presentzia eta goiztiartasuna. Umeen izaera, sentiberatasun gutxiago eragin ditzake lotura afektiboetan, haurraren suminkortasunaren eta emozionaltasun negatiboaren ondorioz. Desgaitasuna duten haurrek, ordea, atxikimendu segurua lortzeko aukera gutxiago dute. Hala ere, seme-alaben desgaitasuna onartzea lortzen duten gurasoek atxikimendu segurua garatzen lortzen dutela azaltzen da (López eta Ramírez, 2005). Eta, goiztiartasunari dagokionez, amaren faktoreak dira atxikimendu seguruaren garapenean garrantzi gehien dutenak, gurasoen zaintza gehiago behar dutelako. Horrek, batzuetan, atxikimendu ez-segurua eragin ditzake, gurasoen egoera horietan jasaten duten estresa dela eta (Amar et al., 2009).

Beste ideia-ordena batean, Cantero-k (2003) atxikimenduaren kalitatean eragina duten faktoreak hiru talde ezberdinetan bereizten ditu. Lehenik eta behin, gurasoen-ezaugarriak azaltzen dizkigu, non Bowlby (1989) hurrengokoa adierazten duen: *“Existen, pruebas clínicas de que el sentimiento de una madre por su bebé y la conducta mostrada hacia él están también profundamente influidos por sus anteriores experiencias personales, sobre todo, por aquellas que tuvo y que todavía puede estar teniendo con sus propios padres”*. Horregatik, Cantero (2003) aipatzen du mesedegarria litzatekeela haren

atxikimendu-historiari buruzko ebaluazio bat egitea haurra jaiotze aurretik, haien arteko alderazioak saihesteko. Bigarrenik, Cantero-k (2003) haurren ezaugarriak azaltzen ditu. Ezaugarri horietan kontuan hartzen dira, besteak beste, jaiotzearen goiztiartasuna, erditzeko konplikazioak edota jaiotzearen urritasunak. Era berean, bigarren talde honetan haurren izaera ere sartu behar da, izan ere, suminkorragoa bada, konplexutasun handiagoa sortzen du zaintzailearekiko elkarreraginean.

Azkenik, testuingurua kontuan hartu behar da, gizarteak eragina baitu gurasoen seme-alabei ematen dieten zaintzan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ingurune hurbileko pertsonen laguntza emozionala, izan ere, estresa izanez gero, oso posible da segurtasunik gabeko atxikimenduak garatzea. Eta, gizarte-laguntza izanez gero, estresa murriztu eta sentsibilitatea handitzen da (Cantero, 2003).

3.2.3.3. Banandu ondorengo haurren dolu-prozesuaren faseak

Bowlby-k (1979) hiru faseetan banatzen du haurrak duen prozesua, bere lotura afektiboarekiko banaketaren ondoren.

Lehenengo fasea protesta-faseari dagokio, ordu batzuetatik egun batzuetara iraun dezakeena. Horregatik, haurra kasketatik lasaitzera igarotzen da. Baina, lasaitzea lortu arren, urduri egoten da bere lotura afektiboa ez dagoelako. Hori dela eta, bere lotura afektiboa itzultzea nahi du, eta, bere desira hori itzultzen ez dela ikustean, haurra etsipen-fasean sartzen da. Fase honetan, badirudi haurrak ez duela bere atxikimendu-figura gogoratzen. Eta, bere lotura afektiboa bere bila itzultzen denean, interesik gabe agertzen da eta noizbait ez duela ezagutzen transmititzen du. Fase horretara iristean, haurra atxikimendurik gabeko fasean sartzen da. Behin fase honetan sartuta, dolua ebazteko fase bat erakusten du galeraren aurrean. Aldi berean, egokitzeko estrategia etologiko bat erakusten du, bere lotura afektiboa modu osasungarrian berregiteko aukera ematen diona. Edo, are gehiago, beren jokabide sozialean eragina izango duten atxikimendu berriak sortzen dituzte (Calle, 2012).

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da ez direla beti hiru faseak garatzen, haurrek haien bizi-zikloan bizi dituzten zirkunstantzien araberakoa baita. Esate baterako, abandonua, haurren tratu txarrak, pobrezia, hezkuntzarako aukera-desberdintasuna, etxebizitza eta gizarte-ongizatea (Barudy, 2001).

3.3. HAURREN ATXIKIMENDUAREN DETEKZIOA ETA ESKU-HARTZEA

3.3.1. Atxikimendu mota hautematen duten ikasleen portaerak

Ikasleek beren familia-bizitzan ikasi dituzten harremanak errepikatzeko joera dute ikastetxean. Adierazi behar da hamar hilabetetik aurrera haurren bizipen afektiboak zabaldu egiten direla, eta, beraz, haurrek figura subsidiarioak izatea ahalbidetzen dela. Figura mota horiek balioa dute haurren bizi-zikloan, lotura afektibotik aldentzen direnean segurtasun emozionala aurkitzeko aukera dutelako (Bowlby, 1989).

Gauzak horrela, Sierra eta Moya-k (2012) estimulatzeko ari diren atxikimendu mota nola identifikatu behar diren erakusten digute, ikasgelan izaten dituzten jokabideen arabera. Gainera, irakasleek portaera horiek nola interpretatu behar dituzten aipatzen dute.

Ezagutzera ematen diguten lehen jokabidea “*Niños que se sienten seguros en el aula*”-ri buruz dihoa. Kasu honetan, haurrak beren lotura afektiboetatik banandu behar diren lehen aldietan protesta-jokabidea izaten dutela azaltzen digute. Baina irakaslea figura sentikor gisa ikusten dutenean eta ingurunea ezagutzen dutenean, hurbiltasun fisikoa eta emozionala nahi dute. Hau da, begiradaren bidez irakaslearekin elkarreragina bilatzen dute, eta, gainera, ikaskideekin harremanetan hasten dira. Gainera, haurren eskaerak koherenteak dira ikaskideen eta irakaslearen erantzunetik gertakariekin eta erreakzioekin (Sierra eta Moya, 2012). Nabarmendu behar da hori gertatzen dela haur horiek ulertzen dutelako beste heldu batzuek ere berdin joka dezaketela, eta, beraz, haiengandik debozioa, segurtasuna eta onarpena jasotzea espero dutela (Marrone, 2009).

Horregatik, irakasleek egoki interpretatzen dituzte haurren eskaerak eta erreakzioak. Era berean, haurrek kognitiboki eta afektiboki lotu dutenarekin pozik sentitzen dira. Horrek elkarreragin gehiago sortzen ditu irakaslearen eta ikaslearen artean, modu naturalean. Atxikimendu-loturarekin berriz topo egiteko unean, berriz, lasai eta konfiantzaz agertzen dira (Sierra eta Moya, 2012).

Jarraian, Sierra eta Moya-k (2012) ikasleek ikasgelan dituzten jokabideen arabera estimulatzeko ari diren atxikimendu mota identifikatzeko beste jokabide bat aurkezten digute. Kasu honetan, “*Niños invisibles en el aula*” buruz dihoa. Haur horiek ekiditezko atxikimendua dute, atxikimendu-loturak sentiberatasunik gabeak izan direlako eta ez dietelako haien beharrei erantzuten. Hori dela eta, eskolara sartu eta gurasoengandik aldentzen direnean, ez dute antsietaterik ezta kasketaldirik erakusten. Aldi berean, ez dituzte irakaslearen arreta-deiei kasurik egiten eta ez dute irakaslearen laguntza eskatzen egoera zailtan.

Ikasleen jokabide horien ondorioz, irakasleek oso azkar egokitu direla interpretatzen dute. Baina, modu lasaiago batean aztertzen badute, guztiz kontrakoa dela ikus daiteke. Hala ere, haur horiek bakarrik lan egiten dute eta oso azkar frustratzeko joera dute. Beraz, garrantzitsua da ulertzea zergatik egiten zaien konplexuak ezarritako zeregin ezberdinak: azaldutako zereginak haurrak oraindik ez dituen gaitasunak behar dituztelako, oso lan zailak direlako, ez dituzte jarraipenak ulertu, ...

Sierra eta Moya-k (2012) ikasleen atxikimendu mota hautematen duten hirugarren portaera "*Los niños que no saben si pueden confiar*" buruz dihoa. Jokabide hau atxikimendu ansioso-anbibalentea duten haurren ondorio da, ez dakitelako noiz eta zeren mende dauden. Jokabide horren ondorioz, babesa bilatzen dute, baina, bestalde, arbuioa eta frustrazioa erakusten dute. Haur hauek etengabeko alertan daude, eta, horregatik, beldur dira irakaslea ustekabekoa izango ote den. Egoera horiek direla eta, desorientatuta agertzen dira behar duten babesa eta laguntza lortzeko moduari dagokionez. Hau guztia laguntza eta segurtasun eskaera gisa interpretatu behar dute irakasleek. Horretarako, eguneroko errutinak eta jarduerak bitartekari egokiak dira.

Azkenik, "*El niño asustado*" azaltzen da. Hau, atxikimendu desantolatua duten haurrei zor zaie, abusoak eta tratu txarrak jaso dituztelako. Beraz, beldurra agerian uzten dute. Berebiziko garrantzia du detekzio goiztiarrak eta hezkuntza-ingurune arduradun guztien baterako lanak, izan ere, hurrek ikastetxea leku seguru gisa ikusi behar dute (Sierra eta Moya, 2012). Gainera, irakasleekin duten harremana problematikoa da, ez direlako haietaz fidatzen. Haur horiek ahalguztidunak eta jakintsuak direla dirudi, zaila egiten zaielako ezer dakitela onartzea (Geddes, 2017).

3.3.2. Irakaslea atxikimendu figura-gisa eta hurrengan duen eragina

Irakasleek funtsezko zeregina dute haurren zaintzan. Bowlby-k (1969, Moreno-n aipatua, 2010) banantzean gurasoen rola betetzen duen edozein pertsonari atxikimendu subsidiarioko figura gisa izendatzen zaiola aipatzen du.

Figura subsidiario bezala izendatzeko, Ainsworth-ek (1989, Moreno-n aipatua, 2010) atxikimendu-erlazioen bat sortzeko kontuan hartu behar diren bi irizpide garrantzitsu aipatu zituen. Alde batetik, estres-uneetan haurrei ematen zaien zaintza eta, bestalde, haurrei ematen zaien arreta, segurtasuna eta lasaitasuna lortzeko. Hala ere, Howes-ek (1999, Moreno-n aipatua, 2010) azaltzen du haurrak irakasleekin lotura afektibo bat izaten hasten diren unean, beraiek badutela gurasoekin duten harremanari buruzko barne-eredu bat. Horregatik, haiekin duten atxikimenduaren antzeko prozedura kopiatzeko joera dute.

Hala ere, Moreno-k (2010) aipatzen du haurrek irakasleekin duten harremanak larritasun handiagoz eragiten diela jokabide sozialei.

Zentzu horretan, irakasle-ikaslearen harremanak sortzeko irakaslearen alderdi garrantzitsuak kontuan hartzeko beharra ulertzen da. Alderdi horiek beste batzuekin harreman berri bat hastean izan duten harreman pertsonalean oinarritzen dira, haien historia indibidualean eta lotura horietan izandako esperientzian (Kesner, 2000, Moreno-n aipatua, 2010). Baina, era berean, oso garrantzitsua da irakasleek eskola-giro positiboa sortzea, haurrek emaitza hobekak izan ditzaten esparru akademikoan, izan ere, giro positiboa sortzeari esker, garapen positiboa sustatzen da beste pertsona batzuekiko loturetan. Irakasleek haurren garapen sozioemozionalean eragina dutelako (Moreno, 2010).

Laguntza emozional segurua dituzten eta irakasleekin nolabaiteko atxikimendua duten haurrek emaitza akademiko hobekak izaten dituzte normalean, eta gainerakoekin harremanetan jartzeko gaitasun handiagoa dute (Andersson et al., 1981; Pianta et al., 1997, Moreno-n aipatua, 2010). Ildo beretik, irakasleekin harreman positiboak dituzten eta maila akademiko altua duten haurrek erraztasun handiagoa dute ikaskideekin sozialki jokatzeko (Howes eta Smith, 1995, Moreno-k aipatua, 2010). Howes-ek, Hamilton-ek eta Matheson-ek 4 urteko haurrekin 1994an egindako ikerketa batean behatu zen irakasleekin atxikimendu segurua zutenek lotura sozial hobekak zituztela ikaskideekin, besteekin sentikorragoak, lagunkoiagoak eta ez hain gatazkatsuagoak direlako (Moreno, 2010). Gauzak horrela, irakasleek haurren atxikimenduan atxikimendu-figura gisa duten garrantzia ikusten da.

3.4. ATXIKIMENDUAREN GARRANTZIA EGOKITZAPEN ALDIAN

Oso garrantzitsua da egokitzapen-prozesua modu egoki batean eraikitzea, haurrak ikastetxeetan integratzean biziko duen banantzearen aurrean. Prozesu horrek eragin positiboa edo negatiboa izango duelako eskolatze osoan zehar eskolarekiko, gizarte-harremanarekiko eta ikaskuntzekiko duten jarreran, haurrek ulertzeko duten moduaren arabera (Muñoz, d.g.).

Hori dela eta, senideek eta irakasleek haurrak egokitzapen-aldi egoki bat sortzeko ardura dute, atxikimendu-figuraren lotura afektibo oso sendoarekin joaten baitira ikastetxera. Horrek esan nahi du, umeei sufritzea eta ezinegona sentitzea, ikastetxean abandonatuta sentitzen direlako haien lotura afektiboa galduko dutela pentsatzeagatik. Horregatik, ikastetxean sartzen direnean oso aldaketa handia sumatzen dute, familia-inguruetik ateratzen direlako eta beste haurrekin konfiantzazkoak ez diren beste espazio batean erlazionatu behar direlako (Muñoz, d.g.).

Sroufe-k (1983) atxikimendu-loturak eta eskola aztertu zituen. Bertan ondorioztatu zuen atxikimendu segurua duten hurrek eskolara egokitzeko erraztasun handiagoa dutela, malgutasunari eta autoestimuari dagokienez balorazio hobekak adierazten dituztelako. Gainera, ez dira irakasleen hain mendekoak, haien estimua gehiago azalarazten duten arren. Haur hauek lotura sozial oso onuragarriak dituzte eta oso kolaboratzaileak dira. Hala ere, atxikimendu ez-segurua duten haurrak ez dira gai erronkei konbikzio berarekin aurre egiteko, ez dira oso seguruak eta besteekiko mendekoak dira.

Aldi berean, Cantero-k (2003) egokitzapen-aldia hurrengan duen garrantzia azaltzen du, haurrak beren atxikimendu-figurarekin banantzen direlako. Hori dela eta, haurrak egokitzapen-aldian dituen faseen atalean azaldu den bezala, adierazi behar da protesta-fasean, beren atxikimendu-loturekin berriz topo egiten dutenean, hurrek duten atxikimendu-motaren arabera jokabide desberdinak dituztela.

Atxikimendu seguruak dituzten hurren kasuan, pozik eta emozionalki seguru egoten dira. Haur hauek azkar eta modu egokian egokitzen dira eskolara, izan ere, gurasoek eskolan uzten dituztenean edo desadostasun bat dutenean baino ez dute protesta-fasea adierazten. Atxikimendu anibalentea duten hurrek, berriz, hurbiltze- eta gaitzespen-portaerak dituzte, eta, ondoren, antsietatea adierazten dute, beren lotura afektiboekiko banantzearen ondorioz. Sentimendu horrek joko eta esplorazioa ukatzen die. Gainera, abandonuaren beldur dira eta ez dira maitatuak ezta onartuak sentitzen. Horregatik, ikastetxean irakaslearen mende daudela adierazten dute. Hala ere, ekiditezko atxikimendua duten haurrak apatiko agertzen dira beren lotura afektiboarekin berriz topo egiten dutenean. Kasu horretan, ez dute minik adierazten, eta, horregatik, neutralak dira haien lotura afektiboaren aurrean (Cantero, 2003).

Alde horretatik, ulertzen da hurrek adierazten duten atxikimendu-motaren arabera, egokitzapen-aldian modu batean edo bestean egokitzen direla. Atxikimendu segurua duten hurrek ongizatea, konbikzio eta itxaropena adierazten dute larritasun-egoeretan laguntza bilatzen dutenean. Era berean, haserrea onartzeko eta erregulatzeko gai dira. Aldiz, atxikimendu ez-segurua dituzten hurrek ez dute hain erraz haien emozioak erregulatu. Hori dela eta, beren emozioak kontrolik gabe adierazten dituzte, eta, gainera, ez dute beste pertsona batzueganako afekturik nahi (Orts, 2020).

Hala ere, Sroufe-k (1983) dioenez, egokitzapen-aldian zentratzen baldin bagara, atxikimendu segurua duten hurrek trebetasun eta sinesmen handiagoa dute irakasleekin

eta ikaskideekin harreman berriak sortzeko. Gainera, harreman horiek etorkizunean irauten dutela aipatzen du. Atxikimendu ez-segurua duten hurrek, berriz, ez dute segurtasunik ezta konfiantzarik, irakasleekin harreman sendoa izateko eragozpenak dituzte, haien gurasoen martxaren beldur dira eta ez dute ingurunea ikertzen. Horren ondorioz, hurrek ez dute beren independentzian, integrazioan eta egokitzapenean aurrera egingo.

Bestalde, atxikimendu segurua duten hurrek erraztasun handiagoa dute egokitzapen-aldian beren lotura afektiboan gabeziak onartzeko, haietaz fidatzen baitira eta gero haien bila etorriko direla ulertzen dutelako (Sroufe, 1983). Gurasoengan jartzen duten konfiantza horrek haien konfiantza eta autoestimua handitzea eragiten du (Ainsworth et al., 1974). Aitzitik, atxikimendu ez-segurua duten hurrek beldur diote haien gurasoen martxari, ez dutelako ulertzen eta espero haien bila itzuliko direnik. Beraz, banantzeek beldurra eta segurtasun eza eragiten diete (Pallàs, 2013). Baina, hurrek beren lotura afektiboetatik lasai banantzeko gaitasuna dutenean, beren heldutasun mailan aurrera egingo dute, eskola-egokitzapenari dagokionez eta beren bizi-zikloan esperimintatu behar dituzten banantzeei dagokienez (Furman, 1974).

Gauzak horrela, gurasoek egokitzapenean duten garrantzia kontuan har daiteke, izan ere, seme-alabekiko banaketa onartzeko moduak eragina izango du haurrengan. Hortaz, prozedura honetan, haurraren hurbileko loturen zeregina laguntza ematea, gidatzea eta behatzea da, haren hurbilketak, itxaropenak eta inguruabarrak konpontzeko moduak ulertzeko (Muñoz, d.g.). Izan ere, senideen eta irakasleen artean dagoen loturak berebiziko garrantzia du haurren ikaskuntzan, emaitza akademikoetan eta haurren portaeretan eta sozializazioan baldintzatzen dituztelako (Garreta, 2015).

Azaldutakoa dela eta, Cantero-k (2003) irakasle gisa parte hartzeko garrantzitsuak izan daitezkeen aholku multzo bat aurkezten du, haurren egokitzapena ahalbidetuko duen hezkuntza-erantzun egokia emateko:

- Ikasleak giro berrira ohitzea.
- Ikasleak pixkanaka sartzea.
- Onartzea eskolako lehen egunetan ikasleak beren senideekin egotea.
- Hurrei eskolako lehen egunetan beren lotura afektiboekin telefonoz komunikatzen uztea.
- Iskanbilak edota joan-etorriak eragozteak.
- Zeregin laburrak, desberdinak eta talde txikietan egitea.
- Hurrek beren gauza pertsonalak erabiltzeko leku bat sortzea.

- Ikastetxetik kanpo harremanak izatea gomendatzea, haien arteko harremana sendotzeko.
- Haurrek dituzten emozioak ez epaitzea.
- Abusu-gertakariak zaintzea (halakorik baldin badago).

3.5. ERREALITATEAREN ARGAZKIA

Marko teorikoan zehar aipatu den bezala, egokitzapen-aldia funtsezko faktorea da ikasleen bizitzan, eta, beraz, ezinbestekoa da irakasleek prestakuntza zabala izatea prozesu hau modu egokian gauzatu ahal izateko. Gaur egun, irakasleek ez dute etengabeko prestakuntzarik jasotzen aldi honek duen balioa ezagutzeko. Hori dela eta, ez diote garrantzirik ematen etapa honi eta, ondorioz, ez dakite asko honi buruz edota ikasgeletan nola ezarri.

Era berean, Pállas-ek (2013) dioen bezala, ikastetxe batzuetan ez diote garrantzi handirik ematen egokitzapen-aldiari, horregatik, egokitzapena ez dute behar bezala egiten. Kasu honetan, irakasle horiek ez diete ikasleei egokitzeko aukerarik ematen, eskolako lehen egunetik lanaldi osoa egin behar dutelako, hau da, ez dute etapa hau modu mailakatu batean egiten. Bestalde, ikastetxe batzuetan ez dute aukerarik ematen egokitzapen-aldian haurren lotura afektiboak bertaratzeko. Hori haurrak behar bezala egokitzea eragozten duen beste faktore bat da, umeei haien presentzia behar dutelako eskolako lehen egunetan haien atxikimendu lotura hausten ez dela ikusteko.

4. HELBURUAK

Gauzak horrela, ikerketa lan honentzat hurrengo helburua planteatzen da:

- Irakasleen egokitzapen-aldiari eta atxikimenduari buruzko usteak eta ezagutzak aztertzea, baita haien arteko erlazioa ere.

Helburu espezifikoak, berriz, honako hauek dira:

- Egokitzapen aldiari buruzko usteak jakitea.
- Atxikimenduari buruzko usteak/ezagutzak aztertzea.
- Irakasleen portaerak egokitzapen zail baten aurrean jakitea.

5. IKERKETA

5.1. METODOA

Atal honetan, Gradu Amaierako Lanaren errealitatearen azterketa azalduko da, gero, horren arabera, esku-hartzea planteatzeko. Kasu honetan, erantzun kualitatiboak zein

kuantitatiboak aztertu dira. Hau da, zenbakien bidez informazioa biltzean oinarritu da, eta, bestalde, irakasleek izan ditzaketen iritziak bilduko dira, galdera irekien bitartez. Lidefer-en arabera (2022), ikerketa enpirikoa esperimendazioan, zuzeneko eta zeharkako behaketan eta analisi estatistikoetan oinarritzen da.

Jarraian, ikerketa honetan parte-hartu duten kolaboratzaileak erakutsiko dira. Aldi berean, erabili diren tresnak azalduko dira eta inplementatu den prozedura zehaztuko da.

PARTE-HARTZAILEAK

Parte hartzaileei dagokienez, aipatu behar da Haur Hezkuntzako 69 irakasleek parte-hartu zutela, non %94,3 emakumeak izan ziren, %1,4 binario-ak eta %4,3 gizonak. Era berean, parte-hartzaileen %87k ikastetxe publikoetan lan egiten duten pertsonak izan ziren, %10,1ek itunpeko ikastetxeetan lan egiten dute eta %2,9k ikastetxe pribatuetan.

ERABILITAKO LAN-TRESNAK

Lan hau aurrera eramateko, lehen aipatu bezala, ikerketa kualitatiboa zein kuantitatiboa egin da. Horretarako, galdetegi bat egin da, hiru atal desberdinekin (ikus I. eranskina). Esan daiteke galdetegi hau esparru teorikoaren atalean bildu den informazio garrantzitsuenarekin lotuta dagoela. Aipatu behar da, ikerketa kualitatiboa zein kuantitatiboa egin aurretik, zer ikastetxe motatan lan egiten duten, zein ikasketa egin dituzten, horietako bakoitzaren sexua eta zenbat aldiz egon diren eskolan egokitzapen-aldia egiten galdetu egin dela.

Lehenengo atalean, hamar galdera ireki daude, non zenbakizkoak ez diren datuak lortu nahi diren, hau da, erantzun kualitatiboak. Horrenbestez, galdera horien bitartez, irakasleek egokitzapenari eta atxikimenduari buruz dituzten iritziak ezagutu nahi dira, bai eta bi fenomeno horien artean dagoen loturari buruzkoak ere. Baina, aldi berean, ikastetxeetan egokitzapen-aldia nola egiten duten jakitea ere lortu nahi da. Ideien ordena horren barruan, 4 galdera ireki egokitzapen-aldiari buruzkoak ziren, beste bat, berriz, atxikimenduari buruz, eta 5, egokitzapen-aldiaren eta atxikimenduaren artean dagoen loturari buruzkoak.

Bigarren atalari dagokionez, irakasleek galdera-sortan planteatutako esaldiei buruz duten adostasun-maila du ardatz. Beraz, guztira 8 esaldi batzen dira eskala baten arabera duten adostasun-maila baloratzeko. Aipatu beharra dago, Likert motako eskala baten arabera egin dela, non 5 erantzun aukera dauden. Gauzak horrela, Likert eskala egituraketa honen bitartez oinarritzen da: erabat desados (1), desados (2), ez ados ez desados (3),

ados (4) eta, azkenik, erabat ados (5). Horrela, erantzunak modu kuantitatiboan ikus daitezke, hau da, informazioa zenbakizko datuen bidez biltzen da.

Azkenik, hainbat egoeratan oinarritutako atala dago, non irakasleek beren portaerara gehien hurbiltzen den aukera hautatu behar duten. Kasu honetan, hiru egoera desberdin proposatu dira, jarduteko beste hiru modu desberdinekin. Gainera, beren hautaketaren zergatia justifikatu behar dute. Nabarmendu behar da atal honetan erantzunak modu kualitatiboan eta kuantitatiboan jasotzen direla.

PROZEDURA

Galdetegia irakasleentzat eginda dagoenez, ahalik eta pertsona gehienengana iristeko moduan egin zen. Hori dela eta, google formularioen bidez egin zen. Gauzak horrela, ezagutzen nituen irakasleei bidali nien, baita bigarren eta hirugarren praktikak egin nituen ikastetxeko irakasleei ere. Baina, aldi berean, beste ikastetxetan lan egiten duten irakasleei ere partekatu nien.

Askotan, galdetegia bidali zitzaizen pertsona guztiak ez zeuden parte-hartzeko prest, horrek eskatzen zuen denbora faltagatik edota interes ezagatik. Horren ondorioz, hainbat ikastetxe ezberdinetara joan behar izan zen ikerketaren berri ematera, ikastetxeko irakasleek galdetegia bete ahal izateko.

Gaineratu behar da ikastetxe batean adierazi zela esteka Facebook-eko "*ordezkariak martxan*" izeneko talde batera bidali ahal zela. Bertan, irakasleez osatutako talde bat dela azaldu zuten, non zalantzak argitu eta laguntza eskatzen den.

5.2. ANALISIAK

Atal honetan, galdetegiaren bidez lortu diren emaitzak azalduko dira. Horretarako, bi bloketan banatu da. Lehenik eta behin, irakasleek egokitzapen aldiari zein atxikimenduari buruz dituzten usteak eta ezagutzak azalduko dira. Eta, azkenik, proposatutako egoeraren arabera irakasleek esku-hartzeko dituzten moduak. Hau da, irakasleek egokitzapen zail baten aurrean dituzten portaerak ezagutuko dira.

IRAKASLEEN USTEAK ETA EZAGUTZAK

Lehenengo helburu espezifikoa kontuan hartuta, non egokitzapen-aldiari buruzko usteak ezagutu nahi diren, egindako ikerketaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen honako uste hauek hauteman dira.

Lehenengo galdera irekia galdera-sortako parte-hartzaileek ikastetxe guztietan egokitzapen-aldia behar bezala egiten den ala ez duten iritziari buruz dihoa. Kasu honetan, hainbat iritzi desberdin aurkitu dira. Izan ere, parte-hartzaile batzuek fenomeno hori beren ikastetxean nola egiten den baino ez zuten aurkeztu. Hori dela eta, kolaboratzaile batek honela justifikatu zuen bere erantzuna: *“Ni egon naizenetan bai ondo egin dugu, saiatu gara behintzat. Behar den denbora ematen zaielako familiei, malguak izan garelako egokitzapen epe ofizialarekin. Familiak barneratu ditugulako. Haur bakoitzaren beharretara egokitu garelako”*. Aldiz, parte-hartzaileen gehiengoa ez zeuden ados. Horretarako, honako hau aipatu zuen pertsona batek: *“Ez, ume bat ez delako egokitzen eskolak edo haurreskolak ezarritako aldian, denbora luzeago behar du. Egokitzaldiak orokorrak izaten dira eta ez dira egokitzen ume bakoitzaren behar edo ordutegietara. Aldaketa oso handia izaten da umeentzat eta familiarentzat eta denbora luzeago behar da”*.

Hurrengo galderan, bakoitzak lan egiten duen ikastetxean egokitzapen-aldia egiteko moduari egiten zaio erreferentzia. Galdetegian ikus daiteke, parte-hartzaile guztiek modu gradual batean egiten dutela, non apurka-apurka ordutegiaren orduak gehitzen dituzten eta, gainera, gurasoen laguntza duten. Baina, ikastetxe bakoitzean egun kopuru ezberdin bat eskaintzen diote, izan ere, eskola batzuetan 2 egunetan egiten dute, eta beste batzuetan, berriz, irailean edota urrian. Hala ere, beste parte-hartzaile batek bere ikastetxean haurren eta senideen erritmoaren arabera egiten dutela aipatu zuen.

Hirugarren galdera ikasle bat noiz egokitu den buruz dihoa. Galdera honetan hainbat iritzi aurki daitezke. Alde batetik, irakasle batzuek pentsatzen dute ikaslea egokitu dela zoriontsu, lasai eta aske daudenean. Baina, baita irakasleengan konfiantza hartzen dutenean. Bestalde, irakasle batzuek uste dute ezin dela eredu jakin bati buruz hitz egin, haur bakoitza desberdina delako, eta batzuk lehen egunetik eroso sentitzen dira, eta beste batzuek, berriz, hilabeteak kostatzen zaizkie egokituta sentitzea.

Ildo beretik jarraituz, parte-hartzaileen %100ek haur guztiak modu berdinean egokitzen ez direla uste dute, haur bakoitzak erritmo, bizipen, izateko modu eta ezaugarri desberdinak dituztelako. Adibidez, kolaboratzaile batek honako hau adierazi zuen: *“Ez, bakoitza pertsona bat den heinean, bakoitzak bere erritmoa behar du, eta hori errespetatu behar da. Bakoitzak bere motxila eta izaera dakartza eta horren ondorioz, bakoitzak bere egokitzaldia dauka”*.

Ikasle bakoitzak erritmo desberdina duen bezala, bakoitzak zailtasun desberdinak dituztela aipatu zuten. Gehienek justifikatu zuten, ikasle bakoitza desberdina delako esanez.

Baina, beste batzuek, berriz, haurren garapenaren arabera dela uste dute. Esate baterako, *“zailtasun batzuk amankomunak dira bai, baina ume bakoitzak bere izaera, esperientzia, motxilaren arabera, era batean edo bestean eramango du. Zailtasunak antzekoak izan arren, ume bakoitzarengan ezberdinak dira”*.

Ondoren, irakasleek giro positiboa sortzea garrantzitsua dela adierazi zuten, faktore horrek segurtasuna, lasaitasuna, zorientasuna eta konfiantza sortzen baitizkie haurrei. Aldi berean, parte-hartzaile batek honako hau adierazi zuen: *“eskola segurtasun eta konfiantza gunean izan behar da haurren ikaskuntza prozesua aberasgarria izan dadin. Denbora asko pasatzen dute eskolan, beraz giro positiboa izatea ezinbestekoa da”*.

Ideen ordena berean, parte-hartzaile guztiak ados daude familia-harremanez eskola-eremuari eragiten diotela, izan ere, harreman horrek eskolari eta familiari eragiteaz gain, ikastetxeko parte-hartzaile guztiei eragiten die. Azpimarratzekoa da, nahiz eta guztiak erantzunarekin ados egon, justifikazio desberdinak egon zirela. Alde batetik, senideek beren seme-alabekin dituzten harremanen inguruan gidatu zuten irakasleak ikusten dira (*“Bai, noski. Mota ezberdinetako familiak aurki ditzakegu. Bere umeak gehiegi babesten dituztenak, harreman estuagoak edo hotzagoak sortzen dituztenak eta abar.”*) eta, bestetik, familiaren eta eskolaren arteko harreman ona izatearen garrantzia adierazi zutenak (*“Familiekin harreman estua izan behar dugu eta eskolako partaide sentitu behar dira”*).


Egokitzapen-aldiaren luzera atxikimendu motaren arabera aldatzen ote den oinarritzen den galderan, eta, hala bada, egokitzapen-aldi luzeago batek zer atxikimendu mota duen, 5 kolaboratzailek ez zuten erantzunik ematen jakin. Hala ere, parte-hartzaileetako hiruk ezetz erantzun zuten eta gainerakoek baietz. Baina, erantzunak oso desberdinak dira, izan ere, 8 irakaslek egokitzapen luzeagoa duten haurrek atxikimendu-segurua dutela uste dute. 30 irakaslek, berriz, atxikimendu ez-ziurra duten ikasleek egokitzapen aldia luzeagoa dutela aipatu zuten. Falta diren 23 pertsonak ez zuten jakin bigarren galderari erantzuten, ez zekitelako zein atxikimendu-motari dagokion egokitzapen-aldi luzeagoa, edo azaltzen zutelako ezin zirela haurrak estandar horretan sartu, bakoitzak bere erritmoa duelako.

Aurreko galderari dagokionez, 34 irakaslek haurren portaerak haien atxikimendu mota zehazten duela uste dute. Hala ere, parte-hartzaileen %10,5ek ez daude horrekin ados. Aldi berean, galdera honetan hiru irakaslek ez zuten galdera ulertu, eta beste batzuek uste dute batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Beste erantzun batzuen artean, kolaboratzaileek uste dute haien portaerak ez dutela haien atxikimendu mota zehazten,

baina horren bitartez helduekin nola erlazionatzen diren ikus daitekeela. Hala ere, beste parte-hartzaile batzuek ikasleek dituzten portaerek piztak eman diezaguketela pentsatzen dute, baina beti ezustekoak egon daitezkeela.


Azkenik, ume batek egokitzapen-aldirako eman diren egunetan ez bada egokitzen, luzatuko lukeen soilik berarentzat eta, hala bada, zenbat aste edo hilabete gehiago deskribatzen duen galdera dago. Kasu horretan, 62 irakaslek ez zuten zalantzarik izan galdera horri baiezkoa emateko, eta parte-hartzaileetako bik hori gertatzea ezinezkoa dela pentsatzen dute: *“gaur egungo hezkuntzarekin hori ezinezkoa da”*. Ildo beretik, galdetegi honetako kolaboratzaile batek uste du hori ez dela eraginkorra. Baina, beste parte-hartzaile batek hurrengokoa dio: *“uste dut moldatu daitekeela baina askotan denbora asko pasa daiteke guztiz egokitu arte eta beraz askotan mugak jartzea egokiagoa izango da”*. Aldiz, 2 irakaslek ez lukete egokitzapena luzatuko, eta beste pertsona batek, berriz, horretaz ziur ez dagoela dio. Baietz erantzun zutenen kasuan, ikasleak behar zuen denbora guztia luzatuko zutela esan zuten, baina senideekin adostu beharko zutela.

Parte-hartzaileek egokitzapen-aldiari buruz dituzten usteak ezagutu ondoren, bigarren helburu espezifikoan aipatzen den bezala, irakasleek atxikimenduari buruz dituzten usteak/ezagutzak aztertu dira. Hori dela eta, ikerketan parte-hartu zuten guztien artean, irakasleen %81,2k haur guztiek egokitzapen-aldian erraztasun bera ez zutela adierazi zuten. Aitzitik, %11,6k ez zeuden ados baieztapen horrekin. Hala ere, %2,9a erabat ados zeuden egokitzapenean ikasle guztiek erraztasun bera izatearekin. Hala eta guztiz ere, gainerakoek *“ez ados ez desados”* (%2,9a) eta *“ados”* (%1,4a) hautatu zuten.




1go grafikoa: Haur guztiek erraztasun bera dute egokitzapen-aldian.

Bigarren baieztapenari dagokionez, %72,4k ikasleek ikastetxean beren familia-bizitzan ikasi dituzten harremanak errepikatzeke joera dutela adierazi zuten. %7,2k, berriz, ez zeuden ados azaldutakoarekin. Eta %20,3a ez zeuden *“ez ados ez desados”*.




2. grafikoa: *Ikasleek beren familia-bizitzan ikasi dituzten harremanak errepikatzeko joera dute ikastetxean.*

Gelako giroarekin eta harremanekin bat etorriz, irakasleen %100ek ikasleekin lotura afektibo bat sortzea funtsezkoa dela adierazi zuten, ikasgelan seguru senti daitezten. Zuzenagoak izanik, %84,1ek guztiz ados zeuden eta %15,9k “ados” zeuden baieztapen horrekin.




3. Grafikoa: *Funtsezkoa da ikasleekin lotura afektibo bat sortzea, ikasgelan seguru senti daitezten.*

Irakasleen %69,6k egiaztatu zuten tresnak eta ezagutzak dituztela ikaslearen egokitzapenik eza dagoenean jardun ahal izateko. Gainerako parte-hartzaileen adostasun-maila, berriz, honako aukera hauen artean banatu zen: “ez ados ez desados” (%27,5) eta “desados” (%2,9).




4. grafikoa: *Tresnak eta ezagutzak ditut ikaslearen egokitzapenik eza dagoenean jardun ahal izateko.*

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, parte-hartzaileen %15,9k adierazi zuten erabat ados zeudela atxikimendu ez-segurua duten haurren aurrean nola jokatu behar duten jakiteko prestakuntza dutela. Horri dagokionez, %37,7k “erabat desados” edota “desados” zeuden prestakuntza bat jaso izanarekin. Eta gainerakoek ez zeuden “ez ados ez desados” esaldi horrekin. Gauzak horrela, ikus daiteke irakasle askok adierazi dutela ez dutela prestakuntzarik atxikimendu ez-segurua duten haurrekin lan egiteko.




5. Grafikoa: Prestakuntza jaso dut atxikimendu ez-segurua duten haurren aurrean egokitzapen-aldian nola jokatu behar dudan jakiteko.

Nahiz eta irakasle guztiek ez duten ikasgelan aurki ditzakegun egoeretan nola jokatu behar den jakiteko prestakuntzarik jaso, galdetegi honetan parte hartu duten irakasle guztiak eskola giro-positiboa sortzeko gai sentitzen dira. Egia da batzuk besteak baino gaituagoak sentitzen direla, kolaboratzaileen %7,2a ez baitzegoen “ez ados ez desados” esaldi horrekin.




6. Grafikoa: Eskola-giro positiboa sortzeko gai naizela sentitzen dut.

Aldi berean, irakasle gehienak prest sentitzen dira ikasleei ikasgelan autonomia-estrategiak eskaintzeko, %8,7a izan ezik, ez baitaude “ez ados ez desados”. Hala eta guztiz ere, gainerakoek, bai “ados” bai “erabat ados” zeudela hautatu zuten, non kolaboratzaileen %31,9k azken aukera hori hautatu zuten.



7. Grafikoa: Ikasleei ikasgelan autonomia estrategiak emateko prestatuta sentitzen naiz.

Azkenik, irakasle guztiek helburu bera dutela sumatu ahal izan da. Kasu honetan, ikasleen familiekin eta ikasleekin sintonia ona izatea da haien helburuetako bat. Azken grafikoan adierazten den bezala, parte-hartzaileen %72,5ek prest sentitzen dira kidetasun hori familia-eskolarekin zein eskola-ikasleekin sortzeko. Hala ere, %1,4a ez daude “ez ados ez desados”.




8. Grafikoa: Nire helburuetako bat ikasleen familiekin eta ikasleekin sintonia ona izatea da.

IRAKASLEEN ESKU-HARTZEKO MODUAK

Atal honetan hiru egoera desberdin azaldu ziren, non irakasleek beren esku-hartzeko moduari gehien egokitzen zizaion aukera hautatu behar izan zuten. Gauzak horrela, hirugarren helburu espezifikoan aipatzen den bezala, irakasleek egokitzapen zail baten aurrean dituzten portaerak aztertu ahal izan dira.

Hori dela eta, lehen egoera atxikimendu ez-segurua duen haur bati buruz dihoa, non eskolako lehen egunean ez duen ez antsietaterik ez kasketaldirik adierazten. Gainera, ez dio kasurik egiten irakaslearen arreta-deiei, eta ez dio ezertarako laguntzarik eskatzen. Kasu honetan, irakasleen %82,6k ikaslea behatzen jarraitzeko aukera hautatu zuten, haren aurrerapenak aztertzeko. Irakasleen %17,4k, berriz, senideekin biltzeko aukera hautatu zuten, konponbidea bilatu eta haurraren beharrak asetu ahal izateko.




9. Grafikoa. Lehenengo egoera.

Ikaslea behatzen jarraitzeko aukera hautatu zuten irakasleei dagokienez, emandako justifikazioan bat etorri ziren, senideekin bildu behar izateko adina denbora igaro ez zela uste zutelako: *“egokitzapena luzatzea behar badu, behatuko dugu aurrera egiten duen apurka-apurka. Ikusten bada egunak aurrera doazela eta ez dagoela aldaketarik orduan gurasoekin hitz egingo nuke eurekin neurriak eta erabakiak hartzeko”*. Hala ere, senideekin bilera bat izatea aukeratu zuten irakasleek honako hau adierazi zuten: *“Umearen behaketa ezinbestekoa da baina familiekin harremana baita ere, beraiek ezagutzen bait dute haurra gehienbat eta gure arteko ideien elkartrukeak lagundu ahal dielako gehien haurrari”*.

Lehen egoera honetan, parte-hartzaile batek familiarekin biltzeko aukera hautatu arren, ikaslea behatzen jarraitzeko aukera ere aukeratuko zuela azaldu zuen: *“Azkeneko bi aukerak aukeratuko nuke. 1 familiarekin biltzea garrantzitsua da informazio trukaketa emateko eta etxean (edo berarentzat leku segurua den tokian) azaltzeko zer egin behar duen eskolan”*.

Aurkezten zaien bigarren egoera ikasle batek bere familia-inguruetik irtearen ondorioz atxikimendu-lotura galduko duela pentsatzeagatik duen sufrimendua eta kezka deskribatzen du. Egoera horren aurrean, esku-hartzeko aukera hauek eman ziren: ikasleek beren gauza pertsonalak izateko aukera izango duten leku bat egitea (adibidez: album bat familien argazkiekin). Bestalde, alde batean uztea, haurra lasaitu arte. Eta, azkenik, umeari errieta botatzen diot etengabe negar egiten duelako. Egoera horren aurrean, irakasle guztiek (%100-a) aukera bera aukeratu zuten, non ikasleei beren objektu pertsonalak izaten uztea erabaki zuten. Gainera, guztiek oso antzeko azalpena eman zuten:




- Ikasleek beren gauza pertsonalak izateko aukera izango duten leku bat egiten dut. Adibidez, album bat familien argazkiekin.
- Alde batean uzten diot, lasaitu arte.
- Umeari errieta botatzen diot etengabe negar egiten duelako.

10. Grafikoa. Bigarren egoera.

“etxearekiko lotura mantenduko duen elementuren bat lagungarria izango zaio. Albumaren kasuan, berarekin ikusi eta hitz egiteko aukera emango digu. Panpintxoren bat ere lagungarria izan daiteke”.

Planteatutako azken egoera, haur batek klasera sartzeari uko egiten diola azaltzen du, izan ere, atxikimendu-loturatik aldentzeko beldurra dauka. Horren aurrean, eztabaida handia egon zen, iritzi ezberdinak egon baitziren.



- Haurra klasera sartzea behartzen diot.
- Amari berarekin sartzten uzten diot.
- Beste haurrekin klasera sartzten naiz, egoera hori amak kudeatu behar duela uste dudalako.

11. Grafikoa. Hirugarren egoera.

Irakasleen %94,2k amari berarekin sartzten uztea erabaki zuten, izan ere, haurrek ikastetxea gauza seguru gisa ikustea oso garrantzitsua da, non senideak ez diren desagertuko: *“Amaren presentzia gela barruan inportantea da ikusteko eskola-etxea lotura duela. Ama gelan egon daitekeela ikusita, umea uler dezake lotura hori eta lasai egon daitekeela.”*

Hala ere, %1,4k beste haurrekin ikasgelara sartzeko aukera hautatu zuten, egoera hori amak kudeatu behar duela uste dutelako. Aukeraketa hori honela argudiatu zen: *“horrela egiten dugu gure eskolan ta ondo joan zaigu”.* Aldiz, %4,3k haurra ikasgelara sartzera behartzeko aukera hautatu zuten, beren ikastetxeko politikak hala adierazten duelako, non 2 urteko gelan ama sar daitekeen, baina 3 urteko gelan ez. Eta honako hau izan zen beste erantzun deigarrienetako bat: *“behartu hitza oso bortitza iruditzen zait. Baina momenturen batean banaketa hori egin behar da. Nik besoetan hartuko nuke amaren ondoan egonda, lasaitzen saiatuko nintzen eta esango nioke ama berehala bueltatuko dela guk pixkat jolastu ondoren, amari gero arte esan eta gelan sartuko nintzateke. Banaketa luzatzea sufrimendua luzatu dezake”.*

6. PROPOSAMENA: EGOKITZAPEN IDEALA 2 URTEKO GELAN

Atal honetan, 2 urteko gelan aurrera eramango den egokitzapen-aldia deskribatuko da, ikasle bakoitzaren atxikimendua kontuan hartuta. Gainera, erabiliko den metodologia zirkulazio librea da, ikasleek ikastetxean dauden espazioak ezagutu ditzaten, haiek erabakiko baitute nora joan, zer ezagutu, behatu eta manipulatu. Aipatu behar da, egokitzapen-aldi hau 3 urteko gelan ere aurrera eraman daitekeela.

Lehenik eta behin, aipatu behar da Muñoz (d.g.) adierazten duen bezala, maiatzean edota ekainean gurasoekin elkarrizketa pertsonala egingo dela, umeen datu esanguratsuenak izateko. Behin elkarrizketa hori egin ondoren, bilera orokor bat egingo litzateke, haurren harrera planifikatzeko, eskolaren arauak zehazteko eta familia-lankidetzarako alternatibak antolatzeke.

Hortaz gain, ekainean ikasleak astebete 2 urteko ikasgelara joango direla aipatu beharra dago, datorren ikasturtean egongo diren lekua ezagutu dezaten. Horrela, haurrek espazio honetan esperimintatu eta jolastu ahal izango dute eta, horrela, irailean ez dute ezagutzen ez duten espazio batera joan beharko. Aldi berean, senideei aldi hori azalduko dien txosten bat bidaliko zaie, baita triptiko bat aholku ezberdinekin (ikus II. eranskina).

Ikasleek izango duten egokitze-aldiari dagokionez, 4 asteko iraupena izango du, eta ikasleen kopurua eta denbora/orduak funtsezkoak izango dira. Hau da, egokitzapena modu mailakatu batean egingo da. Kasu honetan, irailaren 6tik 30era aurrera eramango da (ikus III. eranskina). Horrela, haur bakoitzarekin banakako arreta izan ahal izango da. Esan beharra dago, haurren batek aldi horretan egokitzea lortzen ez badu, fase hori haien beharretara egokituko dela. Gainera, behar duten haurrei, iraileko azken astearen ondoren, egokitzapen-aldi bat eskainiko zaie arratsaldeetan, 4 astekoa. Gauzak horrela, lehen astean 2 egun joango dira ikasgelara, bigarren astean 3 egun, hirugarren astean 4 egun eta azken astean 5 egun. Goizetan ondo egokituta dauden eta arratsaldeko lehen astean ere egokituta dauden ikasleen kasuan, arratsaldeetan 5 egunetan joateko aukera emango zaie.

Bestalde, 2 urteko gela lau taldetan banatuko dela gehitzea garrantzitsua da (A, B, C eta D). Lehenengo astean, talde bakoitza bakarrik joango da (irailaren 6tik 8ra). Bigarren astean, A eta B taldeak batera joango dira, eta, bestetik, C eta D taldeak. Hirugarren astean, berriz, taldeak aldatuko dira, haurrek elkar ezagutu dezaten. Irailaren 18, 19, 20, 21 eta 22an, taldekatzea honela egingo da: A eta C, alde batetik, eta B eta D, bestetik. Nabarmentzekoa da irailaren 21ean eta 22an ikasleek elkar ezagutzeko aukera izango

dutela, 30 minutuz egongo baitira elkarrekin ikasgelan. Aldiz, iraileko azken astean ikasle guztiak batera joango dira ikasgelara, hau da, egokitzapen-aldiaren hasieran egin ziren lau taldeak ezabatuko dira.

Gelan emango duten denborari/orduei dagokienez, lehen esan bezala, modu mailakatuan egingo da. Hurrek pixkanakako egokitzapena izan dezaten. Irailaren 6an ikasleek 30 minutu emango dute gelan eta irailaren 7an eta 8an ordubete egongo dira. Bigarren astean, aldiz, irailaren 11n, 12an eta 13an ordu eta erdi egongo dira eta 14an eta 15ean bi ordu. Hirugarren asteari dagokionez, irailaren 18an, 19an eta 20an haurrak bi ordu eta erdiz egongo dira, eta 21ean eta 22an hiru orduz. Azkenik, iraileko azken astean haurrak ikasgelara jardunaldi osoan joango dira. Horrela, azken aste honetan jantokian geratzen diren ikasleak ikastetxean bazkaltzen hasiko direla ulertzen da.

Kontuan hartu behar da, bestalde, senideek egokitzapen-aldian duten garrantzia, bertaratze hori nahitaezkoa baita egokitzapenak irauten duen bitartean. Gainera, beti pertsona bera joatea komeni da. Hala ere, familiako parte-hartzaileak ikasgelan “presente” egotea baino ez du egingo egokitzapena errazteko; izan ere, haurrak zerbait eskatzen duen une oro (esate baterako, pixoihala aldatzea, jostailu bat hartzea, eta abar) irakasleari helarazi beharko dio, pixkanaka espazio horretan (ikasgelan) erreferente izango dela uler dezaten. Beharrezkoa izanez gero, lehenengo egunetan senidea bertan egon ahal izango da pixoihala aldatzen den bitartean, adibidez, baina beti irakaslea izango da zeregina beteko duena.

Bestalde, lehen egunetan gurasoak ikasgelatik kanpo geratzea gomendatzen da, haurrak ikasgela konkistatu eta espazio horretan gurasoak egongo ez direla uler dezan. Onarpen hori berandu egiten bada, gurasoak ikasgelan sartu ahal izango dira eta bazter batean eseri beharko dira, haurraren jolasean esku hartu gabe, irakaslea izango baita haien erreferentea.

Nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela alboko gela bat hutsik egotea, gurasoak ikasgelatik “irteteko” proba egiten hasten direnean, haurra senidearen aldentzearen aurrean duen tolerantzia sumatu ahal izateko. Gainera, irakasleak berriro ikasgelara sartzeko eskatu behar badie gertu egongo dira. Era berean, oso garrantzitsua da jakitea ikasgelatik irteteko probak poliki-poliki luzatu behar direla, hau da, lehen egunean 5 minutu aterako dira kanpora, bigarrenetan 10, hirugarrenean 15, laugarrenean 30, bosgarrenean ordu bat eta, gero, goiz osoan zehar joan ahal izango dira.

Tarte horretan, oso garrantzitsua da haur bakoitzak duen atxikimendua kontuan hartzea, haur bakoitza desberdina baita eta egokitze modu desberdina baitu. Hori dela eta, espazio bat sortuko da ikasleek gauza pertsonalak izan ditzaten, non parrainak, beren familiak agertzen diren argazkiak dituzten albumak eta abar izango duten. Horrela, eskolaren eta familiaren arteko lotura ikusi ahal izango dute. Gainera, irakasleak harreman estuagoa izango du atxikimendu ez-segurua duen haurrarekin, eta bere premia afektiboetako oso adi egongo da.

Azkenik, behaketa etengabea egingo dela aipatzea funtsezkoa da, non ikasgelara sartzerako orduan, eskola egunean zehar eta ikasgelatik ateratzeko orduan behatuko diren (ikus IV. eranskina). Horri esker, haurrek egokitzapenean izaten duten aurrerapena ezagutzeko aukera izango da. Ikaslea egokitu den ala ez jakitea bezala.

7. ONDORIOAK

Eskola-egokitzapena eta atxikimendua garrantzi handiko fenomenoak dira gizakien existentzian. Hori dela eta, ezinbestekoa da bi faktore horiek kontuan hartzea ikastetxeetan egokitze-aldia gauzatzeko orduan. Aitzitik, pertsona bakoitza desberdina da eta, horregatik, ezaugarri desberdinak garatzen dira. Kasu honetan, estimulatu diren atxikimendu desberdinak aipa daitezke, atxikimendu-loturekin mantentzen den harremanak afektu horretan eragina baitu.

Hortaz, irakasle guztiok prestakuntza izatea funtsezkoa da, egokitzapena nola antolatu eta ikasleen beharrei nola erantzun behar diren jakiteko. Arrazoi hau dela eta, Gradu Amaierako Lan hau egokitze-aldiaren eta atxikimenduaren garrantzian sakontzean oinarritzen da, bai ikastetxeetan, bai familia-eskolaren arteko harremanean, ikasleentzat lotura osasungarria lortzeko. Baina, aldi berean, Euskal Herriko irakasleek aurkeztu den gaiari buruz dituzten nozioak zeintzuk diren ezagutzea du helburu.

Nabarmendu behar da lau atxikimendu mota daudela, eta horiek eskola-egokitzapenean eragina dutela, gurasoekin duten harremanetatik eta haiek dituzten jokabideetatik. Halaber, haurrak eskoletan integratzen diren unean, beren lotura afektiboekin banantzeari aurre egiten diote, eta, beraz, irakasleek funtsezko zeregina dute haurren bizi-zikloan, ikastetxea ezagutzen ez duten lekua baita. Aldi berean, irakasleek haur eta senide bakoitzak behar duen erritmoa eta denbora errespetatzea ezinbestekoa da, baina, era berean, banakako desberdintasunei erreparatzea garrantzitsua da, haur bakoitza bakarra baita, eta, horregatik, banakako ezaugarriak dituzte.

Bestalde, irakasleen eta senideen arteko harremanak duen oihartzun handia gehitu behar da, horiek baitira beren seme-alabak gehien ezagutzen dituztenak eta, beraz, irakasleek ezagutzen ez duten informazio asko transmititzen dutenak. Gauzak horrela, haiekin komunikazio ona eta giro arina izatea ezinbestekoa da, gurasoak integratuta senti daitezten. Horrek konfiantzazko espazio bat ekarriko du, non ikasleek gurasoen eta irakasleen arteko lotura ikusi ahal izango duten. Gainera, irakasleekin figura subsidiario bat sortzeko aukera izango dute. Alabaina, adierazi behar da familiak ere sufrimendu-sentimendua sentitzen dutela seme-alabak biziko duten etapa berrian, ondorengoek izango duten banantzea eta egokitzapenaren ziurgabetasuna direla eta.

Hori guztia esanda, ondorioak adieraziko dira, egindako ikerketa enpirikoaren bidez lortutako emaitzak kontuan hartuta

Lehenik eta behin, oso garrantzitsua iruditzen zait helburu nagusia eta espezifikoak modu positiboan gauzatu direla adieraztea. Hala ere, esparru teorikoaren atalean, egokitze-aldiari eta atxikimenduari buruz sakondu da, baita bi fenomeno horien artean dagoen loturari buruz ere. Era berean, ikerketaren bitartez irakasleek azaldutako gaiari buruz dituzten nozioak ikusi ahal izan dira.

Hori dela eta, irakasleek egokitzapen-aldiari eta atxikimenduari buruzko ezagutza teoriko nahikorik ez dutela esan daiteke. Izan ere, kontzeptuei eta haien ezaugarriei buruzko nozioak izan arren (esate baterako, ingurune positiboa sortzea duen garrantzia, familia-harremanek eskola-eremuan duten eragina eta hurrek egokitze-prozesuan izan ditzaketen zailtasunak), ezjakintasun handia dago iraupen luzeagoa duen atxikimendu motari buruz. Kasu honetan, 8 parte-hartzaileek atxikimendu segurua duten hurrek denbora gehiago behar dutela egokituta sentitzeko uste dute. Baina, esparru teorikoan aipatzen den bezala, Sroufe-k (1983) atxikimendu segurua duten hurrek eskolara egokitzeko erraztasun handiagoa dutela azaltzen du, malgutasunari eta autoestimuari dagokionez balorazio hobek adierazten dituztelako. Gauzak horrela, irakasleak ez lirateke esku-hartzeko eta arazoa behar bezala hautemateko gai izango.

Sroufek (1983) atxikimendu segurua duten hurrek egokitzapen-aldian erraztasun handiagoa dutela adierazi arren, irakasleen iritziak orain arte gaiari buruz egindako ikerketarekin bat datoz, gutxi egin baitira eta, dirudienez, ez baitago akordiorik haien artean. Ikerketa batzuek diote ez dagoela loturarik atxikimenduaren eta egokitzapenaren iraupenaren artean, beste batzuek atxikimendu segurua duten hurrak geroago egokitzen

direla diote, eta beste batzuek, berriz, atxikimendu ez-segurua dutenak beranduago egokitzen direla aipatzen dute.

Hala ere, irakasleak kontziente dira bi fenomeno horien arteko loturaren garrantziaz; izan ere, guztiek badakite zein garrantzitsua den giro positibo bat sortzea, non ikasleak seguru, zoriontsu eta lasai sentituko diren. Ondorioz, haurren ikaskuntza aberasgarria izango da. Aitzitik, emaitzetatik atera ahal izan den beste informazio batek dio irakasleek ez dakitela haurren portaerak haien atxikimendu mota zehazten duela. Horrek, irakasleen prestakuntza falta adierazten du. Kasu honetan, Sierra eta Moyak (2012), atal teorikoan aipatzen den bezala, erakusten digute nola identifikatzen den ikasleak garatzen ari diren atxikimendu mota, eskola-eremuan erakusten dituzten jokabideen arabera. Hori dela eta, ziurtatu daiteke haurrek dituzten portaerek lagundu egiten digutela haien atxikimendu mota antzematen.

Egokitzapen-aldiari buruzko prestakuntza espezifikoko baten beharra aipatu beharra dago, atxikimendu ez-segurua duten haurrek lotura estuagoak ezarri behar baitituzte ikastetxean beren zaintzaile/irakasle eta ikaskideekin, atxikimendu ez-segurua hori zuzendu ahal izateko. Aldiz, irakasle gehienak galduta sentitzen dira hainbat inguruabarren aurrean jarduteko; izan ere, Likert motako eskalan ikusi ahal izan den bezala parte-hartzaileen %30,4k “desados” edota “ez ados ez desados” daude ikaslearen egokitzapenik eza dagoenean jardun ahal izateko tresnak eta ezagutzak izatearekin.

Aipatu behar da Haur Hezkuntzan, ikasleen senideek zeregin oso garrantzitsua betetzen dutela ikasgelan, haurrak hobekien ezagutzen dituzten pertsonak baitira, eta, gainera, Gonzalez-ek (1996) senideek ikastetxeetan parte hartzeak ondorio positiboak dakartzala adingabearentzat zehazten du, baina baita gurasoentzat eta ikastetxearentzat ere. Aldiz, Bolivarrek (2006) azaltzen du, familia eta eskolaren arteko batasunak, haurrek eskola-errendimendu positiboagoa dutela, eta ikastetxeak, berriz, hezkuntza-kalitatea garatzen duela. Ideien ordena horretan, esan daiteke irakasle guztien helburua familiekin eta ikasleekin sintonia ona izatea dela, eta, beraz, familiaren eta eskolaren arteko harremanak hezkuntza-eremuan duen garrantziaz jabetzen direla.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat egokitzapenari buruz dihoa. Galdetegian ikus daiteke, nahiz eta ikastetxe bakoitzean iraupen desberdina erabili ikasleei egokitzeko, parte-hartzaile guztiek argi dutela haurrak noiz egokitu diren. Hori ezinbesteko faktore bat da, eta horri buruzko ezagutzak izatea ezinbestekoa da, haurren helduaroan eragina izan baitezake. Gainera, kolaboratzaile guztiek aipatu zuten egokitzapen mailakatua, non

senideen laguntza duten, gurasoen inplikazioa ezinbestekoa baita. Era berean, egokitzapen orekatuaz hitz egiten da, non irakasleek taldeen banaketaz, orduen pixkanakako igoyeraz eta abarrez hitz egiten duten.

Komeni da aipatzea irakasleek, oro har, ikasleen ongizatea aukeratzen dutela. Galdetegiaren azken atalean behatu ahal izan da, irakasleek ikasleen segurtasunari garrantzia ematen diotela, haurrak behatuz eta ingurune positiboa sortuz. Hori dela eta, ikasleen beharrak asetzen saiatzen direla esan daiteke. Hori, nire ustez, oso jokabide egokia da, irakasleek esku hartu aurretik dituzten jarrera asko ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen baitizu. Aldi berean, hurrekin lotura afektibo bat sortzeko aukera ematen zaizu, beren gauza pertsonalekin txoko bat sortzen diezun egoeran konfiantza eta lasaitasuna ematen baitiote. Gainera, lotura afektiboekiko lotura ez dela hausten ikus dezakete, eta, ondorioz, familiaren eta eskolaren arteko lotura bat ikus dezakete. Halaber, senideekin harreman estua izateak ezagutzen ez ditugun hurrei buruzko informazioa ematen digu, eta, horrela, laguntza modu egokian bidera diezaiekegu hurrei.

Azkenik, zientifikoki ondo diseinatutako ikerketen garrantzia azpimarratu behar da, eskolan egokitzapen aldiko zailtasunen eta atxikimenduaren artean loturarik dagoen ala ez aztertu ahal izateko. Horrela, nola jokatu jakiteko eta prestakuntzaren garrantzian ohartarazi ahal izateko. Baita atxikimendu ez-segurua duten hurrekin ardura eta dedikazio handiagoz lan egiteko ere.

8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lan hau egin dudan bitartean, egokitzapen-aldiaren, atxikimenduaren eta bere osotasunaren kontzeptu garrantzitsuenetan sakontzeko aukera izan dut. Hau da, nozio berriak izateko aukera izan dut, baita ezagutza egokiak izateak duen garrantziaz ikasteko ere. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da proiektu honetan mugak egon direla eta, horregatik, hobetzeko proposamenak. Nire ustez, egokiagoa izango litzateke ikerketa zabalago bat egitea, non irakasle gehiagok parte-hartuko luketen. Horrela, emaitza esanguratsuagoak lortzeko aukera egongo litzateke eta Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen jarduteko moduak ezagutu ahal izango ziren. Baita, fidagarritasun handiagoko datuak ere lortzeko aukera emango zen.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ainsworth, M. D. S., eta Bell, S. M. (1970). Attachment, exploration, and separation: Illustrated by the behavior of one-year-olds in a strange situation. *Child development*, 41(1), 49-67.
- Ainsworth, M. D. S., Bell, S. M., eta Stayton, D. J. (1974). *Attachment and social development: Socialization as a product of reciprocal responsiveness to signals*. The integration of the child into a social world. Cambridge University Press.
- Aizpuru, A. (1994). La teoría del apego y su relación con el niño maltratado. *Psicología Iberoamericana*, 2(1), 37-44.
- Amar, J. J., Pesellín, M., eta Tirado, D. (2009). Vínculo de apego que establecen padres con hijos nacidos de embarazos múltiples. *Salud Uninorte*, 25(2), 232-244.
- Barudy, J. (2001). El dolor invisible de la infancia. Una lectura ecosistémica del maltrato infantil. Paidós.
- Bolívar, A. (2006): Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común, *Revista de Educación*, 339, 119-146.
- Bowlby, J. (1989). *Una base segura. Aplicaciones clínicas de una teoría de apego*. Paidós.
- Bowlby, J. (1979). *Vínculos afectivos. Formación, desarrollo y pérdida*. Ediciones Morata.
- Calle, D. A. (2012). Apego, desarrollo y resiliencia. *Informes Psicológicos*, 12(1), 25-40.
- Cantero, M. J. (2003). Pautas tempranas del desarrollo afectivo y su relación con la adaptación al centro escolar. *Informació Psicològica*, 3(82), 1-13.
- Cantón, J., eta Cortés, M. R. (2000). Teoría y evaluación del apego. In J. Cantón y M^a Rosario (Edk.), *El apego del niño a sus cuidadores* (o. 15-72). Alianza.
- Dávila, Y. (2015). La influencia de la familia en el desarrollo del apego. *Anales*, 57, 121-130.
- Delgado, A. (2004). Estado actual de la teoría del apego. *Revista de Psiquiatría y Psicología del Niño y del Adolescente*, 4(1), 65-81.

- Del Carmen, R., Pedersen, F. A., Huffman, L. C., eta Bryan, Y. E. (1993). Dyadic distress management predicts subsequent security of attachment. *Infant Behavior and Development*, 16(2), 131-147.
- De la Cruz, J. C., eta Moya, M. (2021). *El periodo de adaptación en Educación Infantil*. Universidad de Granada.
- Domingo, J., eta Pérez, P. (2003). *El periodo de adaptación*. In J.L. Gallego, E. Fernández (Eds.), *Enciclopedia de Educación Infantil* (o. 789-812). Ediciones Aljiba.
- Domingo, P. (2014). *Necesidades, sentimientos e implicación parental en el periodo de adaptación* (Grado Amaierako Lana). Universidad de Cantabria.
- Furman, E. (1974). *A child's parent dies: Studies in childhood bereavement*. Yale University Press.
- Gago, J. (2014). Teoría del Apego: El vínculo. *Escuela Vasco Navarra de Terapia Familiar*, 11, 1-11.
- Garreta, J. (2015). La comunicación familia-escuela en Educación Infantil y Primaria. *Revista de la Asociación de Sociología de la Educación*, 8(1), 1-15.
- Garrido, L. (2006). Apego, emoción y regulación emocional: Implicaciones para la salud. *Revista latinoamericana de psicología*, 3(38), 493-507.
- Geddes, H. (2017). *El apego en el aula. Relación entre las primeras experiencias infantiles, el bienestar emocional y el rendimiento escolar*. Graó.
- Gervilla, A. (2006). *Didáctica básica de la Educación Infantil: conocer y comprender a los más pequeños*. Narcea.
- González R. A. (1996). *Familia y educación. Fundamentos teóricos y metodológicos*. Universidad de Oviedo, Servicio de Publicaciones.
- Gutiérrez, T. (2010). El periodo de adaptación de 0 a 3 años. *Innovación y experiencias educativas*, 28, 1-9.

- Hernández, M. (2017). Apego y psicopatología: la ansiedad y su origen. *Conceptualización y tratamiento de las patologías relacionadas con la ansiedad desde una perspectiva integradora*. Editorial desclée de Brouwer, S.A.
- Ibañez, C. (2010). *El proyecto de Educación Infantil y su práctica en el aula*. La Muralla (18. edizioa).
- Kächele, H. (1993). Desarrollo, Apego y Vínculo: Nuevos conceptos psicoanalíticos. *Psychiatr Pol* 2001, 35(4), 549-71.
- Lantarón, C. (2014). La importancia del apego en la etapa infantil. *Nuberos científica*, 2(13), 63-68.
- León, S. (2009). ¿Por qué es necesario el periodo de adaptación en la Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, 15, 1-9.
- Lidefer. (2022). *Investigación empírica*. <https://www.lifeder.com/investigacion-empirica/>
- López, C., eta Ramírez, M. (2005). Apego. *Rev Chil Fam*, 6(1), 20-24.
- López, F. (1990). Desarrollo social y de la personalidad. *In Desarrollo psicológico y educación (Edk.)*, (o. 99-112). Alianza.
- López, F. (2007). *La escuela infantil: observatorio privilegiado de las desigualdades*. Graó.
- Main, M., eta Solomon, J. (1986). Discovery of a new insecure-disorganized/disoriented attachment pattern [Descubriendo un nuevo patrón de apego inseguro-desorganizado/desorientado]. *Affective development in infancy*, 95-124.
- Marrone, M. (2009). *La teoría del apego: Un enfoque actual* (o. 103-132). Psimática.
- Méndez, L., Ruiz, J. M., Rodríguez, E., eta Rebaque, M. O. (2010). *La tutoría en Educación Infantil*. Wolkers Kluwer.

- Molero, R. J., Sospedra, R., Sabater, Y., eta Plá, L. R. (2011). La importancia de las experiencias tempranas de cuidado afectivo y responsable en los menores. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 1(1), 511-520.
- Moneta, M. E. (2014). Apego y pérdida: redescubriendo a John Bowlby. *Revista chilena de pediatría*, 85(3), 265-268.
- Moreno, R. (2010). *Estilos de apego en el profesorado y percepción de sus relaciones con el alumnado* (Tesis doctoral). Universidad Complutense de Madrid.
- Muñoz, M. (d.g.). *El apego y el periodo de adaptación en la escuela infantil*.
- Ortega, P. (2010). Importancia y necesidad del periodo de adaptación. *Innovación y experiencias educativas*, 35, 1-10.
- Orts, C. (2020). Influencia del vínculo de apego padres-hijo en el periodo de adaptación a la escuela en Educación Infantil. *Educación y Futuro Digital*, 21, 151-169.
- Pallás, M. (2013). *El periodo de adaptación a la escuela: un proyecto con la colaboración de las familias* (Gradu Amaierako Lana). Universidad Internacional de la Rioja.
- Pérez, D. (2010). El periodo de adaptación en la Educación Infantil. *Publicaciones Didácticas*, 7, 189-195.
- Repetur, K., eta Quezada, A. (2005). Vínculo y desarrollo psicológico: la importancia de las relaciones tempranas. *Revista digital universitaria*, 6(11), 2-15.
- Rodríguez, I. M. (2009). La importancia del periodo de adaptación en el alumnado de tres años: una experiencia práctica. *Espiral. Cuadernos del profesorado*, 2(4), 26-33.
- Rodríguez, V. (2016). *Un recorrido acerca de la teoría de apego y las técnicas para evaluarla en la clínica psicoanalíticas con los niños* (Gradu Amaierako Lana). Universidad de la República.
- Sánchez, E. (2007). *El periodo de adaptación a la escuela infantil* (Tesis doctoral). Universidad de Granada.

- Sierra, P. (2006). La génesis y desarrollo de las primeras experiencias socioafectivas. In P. Sierra, P. eta A. Brioso (Edk.), *Psicología del desarrollo. Introducción al cambio evolutivo*. (o. 97-129). Sanz y Torres. Madrid.
- Sierra, P., eta Moya, J. (2012). El apego en la Escuela Infantil: Algunas Claves de Detección e Intervención. *Psicología Educativa*, 18(2), 181-191.
- Sroufe, L. A. (1983). Infant-caregiver attachment and patterns of adaptation in pre-school: the roots of maladaptation and competence. *Minnesota Symposium of Child Psychology*, 16, 41-83.

10. ERANSKINAK

10.1. I. Eranskina: Galdetegia

Ikastetxe mota: publikoa, itunpekoa, pribatua.

Sexua:

Egindako ikasketak:

Zenbat aldiz egon zara egokitzapen-aldia bat egiten eskolan?

1. Zure ustez, egokitzapen-aldia ondo egiten da eskola guztietan?
2. Nola egiten da zure eskolan?
3. Noiz uste duzu haur bat egokitu dela?
4. Zure ustez, haur guztiak modu berean egokitzen dira egokitzapen-aldian?
Zergatik?
5. Zergatik da garrantzitsua eskola-giro positiboa sortzea?
6. Zure ustez, familia harremanek eragina dute eskola-eremuan?
7. Zure ustez, egokitzapen-aldiaren luzera aldatzen da atxikimendu motaren arabera? Halab bada, zein atxikimendu motak du egokitzapen-aldia luzeena (ziurra ala ez-ziurra)? Zergatik?
8. Zure ustez, haurraren portaerak zehazten du haien atxikimendu mota?
9. Ume batek egokitzapen-aldirako eman diren egunetan ez bada egokitzen, luzatuko zenuke bakarrik berarentzat? Zenbat aste edo hilabete gehiago?
10. Zure ustez, haur guztiek zailtasun berberak dituzte egokitzapen-prozesuan?
Zergatik?

Baloratu zure adostasun-maila honako esaldi hauekin, eskala hau kontuan hartuta:

1 - Erabat desados

2 - Ez nago ados

3 - Ez ados, ez desados

4 - Ados

5 - Erabat ados

- Tresnak eta ezagutzak ditut ikaslearen egokitzapenik eza dagoenean jardun ahal izateko.
- Haur guztiek erraztasun bera dute egokitzapen-aldian.
- Ikasleek beren familia-bizitzan ikasi dituzten harremanak errepikatzeko joera dute ikastetxean.

- Prestakuntza jaso dut atxikimendu ez-segurua duten hurren aurrean egokitzapen-aldian nola jokatu behar dudak jakiteko.
- Eskola-giro positiboa sortzeko gai naizela sentitzen dut.
- Funtsezkoa da ikasleekin lotura afektibo bat sortzea, ikasgelan seguru senti daitezela.
- Ikasleei ikasgelan autonomia sustatzeko estrategiak emateko prestatuta sentitzen naiz.
- Nire helburuetako bat ikasleen familiekin eta ikasleekin sintonia ona izatea da.

Irakurri egoera hauek eta aukeratu zure jokaerara gehien hurbiltzen den aukera.

1. Eskolako lehen egunean, atxikimendu ez-segurua duen haur batek ez du antsietaterik ezta kasketarik erakusten. Aldi berean, ez ditu zure arreta-deiei kasurik egiten eta ez dizu ezertarako laguntza eskatzen. Nola jokatuko zenuke?
 - a. Egoten uzten diot, ez baitit arazorik ematen.
 - b. Bere senideekin bilduko nintzateke irtenbide bat bilatzeko eta bere beharrak asetu ahal izateko.
 - c. Haurrari begira jarraitzea erabakitzen dut, zer-nolako aurrerapenak izaten dituen behatu ahal izateko.

- Zergatik?

2. Zure gelako haur batek sufrimendua eta egonezina du bere atxikimendu-lotura galduko duela pentsatzeagatik, bere famili-ingurunetik irteten delako.
 - a. Ikasleek beren gauza pertsonalak izateko aukera izango duten leku bat egiten dut. Adibidez, album bat familien argazkiekin.
 - b. Alde batean uzten diot, lasaitu arte.
 - c. Umeari errieta botatzen diot etengabe negar egiten duelako.

- Zergatik?

3. Haur batek uko egiten dio klasera sartzeari, bere atxikimendu-loturatik aldentzeko beldur delako.
 - a. Haurra klasera sartzea behartzen diot.
 - b. Amari berarekin sartzen uzten diot.

- c. Beste hurrekin klasera sartzen naiz, egoera hori amak kudeatu behar duela uste dudalako.

Zergatik?

10.2. II. Eranskina: Gurasoentzako informea eta triptikoa

Galdakao, 2023ko ekainaren 20a

NORENTZAT	2 urteko guraso guztientzat
NORENA	2 urteko irakaslea
GAIA	2 urteko egokitzapen aldiko informea

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alabak Haur Hezkuntzan sartzeak aldaketa handia dakar haien bizi-zikloan, espazioa eta ikasgelako kide berriak ezagutzen ez dituztelako. Hori dela eta, oso garrantzitsua da senide bat egokitzapen horretara joatea. Gure gomendioa da beti berdina izatea.

Egokitzapen honen helburu nagusia giro egokia eskaintzea da, ikasle bakoitzaren ongizateari balioa emateko. Era berean, bakoitzaren beharrei erantzungo zaie. Horretarako, aldi hori modu progresibo batean egiteko pentsatuta dago, non denbora/ordu kopurua eta ikasleen kopurua garrantzi handiko faktorea izango den.


Beraz, irailean, 2 urteko gela lau taldetan banatuko da. Lau aste hauetan zehar pixkanaka-pixkanaka ezagutuko dira. Kasu honetan, eskolako lehen astean (irailaren 6tik 8ra) A, B, C eta D taldeak ordu ezberdinetan joango dira. Bigarren astean, A eta B taldeak eta, bestetik, C eta D taldeak batera joango dira. Hirugarren astean (irailaren 18tik 22ra) taldeak aldatuko dira, hurrek pixkanaka elkar ezagutzeko moduan. Eta, iraileko azken astean, gela berean elkartuko dira 2 urteko ikasle guztiak.

Azkenik, funtsezkoa da aipatzea aldi horretan zuen seme-alabek egokitzea lortzen ez badute, aldi hori haien beharretara egokituko dela.

Ondoren, irailen ikasleek izango duten ordutegia ikusi ahal izango duzue.

Agur bero bat,

2 urteko irakaslea.


AHOLKUAK: 

1 Ahal den heinean, beti guraso berdina egon behar da egokitzapenean. Kasu konkretu batean, ezin bada guraso berdina joan, bere atxikimendu figura den pertsona joan beharko litzateke.

2 Zuen seme-alabei lasaitasuna eman. Ikasleek irakasleei laguntza eskatzera ohitu behar dira. Hori dela eta, nahi izatekotan zuek gustuko dituzuen aldizkariak, liburuak, ... eraman.

3 Ezin duzue zuen seme-alaba ikasgelatik atera, umea egokituta egon arte.

4 Zure semea egokituta dagoela uste dugunean, ikasgelatik atera eta ondoko ikasgelara joango zarete; izan ere, egokitu ez dela ikusiz gero, inolako arazorik gabe itzul zaitezketekete ikasgelara. Hau da, ezin zarete ikastetxetik atera.

ZUEN SEME-ALABEN EGUTEGIA 

IRAILA 2023						
AS	AT	AZ	OG	OR	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Eskolako lehen eguna

Jaiegunak


Klaseak goizez bakarrik

Klaseak goizez + arratsaldez

GURASOENTZAKO AHOLKUAK

↓

EGOKITZAPEN-ALDIAN



2 urteko irakaslea

ORDUTEGIA



ASTEAK	TALDEAK	
Lehenengo astea	Irailaren 6a	Irailaren 7 eta 8a
	A = 9:00 - 9:30	A = 9:00 - 10:00
	B = 9:30 - 10:00	B = 10:00 - 11:00
	C = 10:00 - 10:30	C = 11:00 - 12:00
Bigarren astea	Irailaren 11, 12 eta 13a	Irailaren 14 eta 15a
	A + B = 9:30 - 11:00	A + B = 9:00 - 11:00
	C + D = 11:30 - 13:00	C + D = 11:00 - 13:00
Hirugarren astea	Irailaren 18, 19 eta 20a	Irailaren 21 eta 22a
	A + C = 9:00 - 11:30	A + C = 9:00 - 12:00
	B + D = 11:30 - 14:00	B + D = 11:30 - 14:30
Lagarren astea	Irailaren 25, 26, 27, 28 eta 29a	
	A + B + C + D = 9:00 - 16:30	

10.3. III. Eranskina: Eskolako egutegia

IRAILA 2023						
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

➤ Eskolako lehen eguna
➤ Jaiegunak
➤ Klaseak goizez bakarrik
➤ Klaseak goizez + arratsaldez (egun osoa)

ASTEAK	TALDEAK	
Lehenengo astea	Irailaren 6a	Irailaren 7 eta 8a
	A = 9:00 - 9:30	A = 9:00 - 10:00
	B = 9:30 - 10:00	B = 10:00 - 11:00
	C = 10:00 - 10:30	C = 11:00 - 12:00
	D = 10:30 - 11:00	D = 12:00 - 13:00
Bigarren astea	Irailaren 11, 12 eta 13a	Irailaren 14 eta 15a
	A + B = 9:30 - 11:00	A + B = 9:00 - 11:00
	C + D = 11:30 - 13:00	C + D = 11:00 - 13:00
Hirugarren astea	Irailaren 18, 19 eta 20a	Irailaren 21 eta 22a
	A + C = 9:00 - 11:30	A + C = 9:00 - 12:00
	B + D = 11:30 - 14:00	B + D = 11:30 - 14:30
Laugarren astea	Irailaren 25, 26, 27, 28 eta 29a	
	A + B + C + D = 9:00 - 16:30	

10.4. IV. Eranskina: Ebaluazioa

> Ikasgelara sartzeko orduan

ITEM-ak	BAI	EZ	BATZUETAN
Naturaltasunez			
Alai			
Urduri			
Uzkurtuta sartzen da			
Ez du sartu nahi			
Ihes egiten saiatzen da			
Negarrez			
Ostikoka sartzen da			
Ez du banandu nahi eskolara daramaten pertonengandik			

Senide batek gelan egon behar du			
----------------------------------	--	--	--

➤ **Eskola egunean zehar**

ITEM-ak	BAI	EZ	BATZUETAN
Negar egiten du			
Egun osoa atearen ondoan pasatzen du			
Ostikoka dago egun osoan zehar			
Leku jakin batean mugitu gabe gelditzen da egun osoa			
Tokiz etengabe mugitzen da			
Ikaskideekin modu espontaneoan jolasten du			
Ikasgelako objektuak ezagutzeko jakin-mina erakusten du eta, gainera, jolasteko erabiltzen ditu			
Jokoetan jokabide desegokiren bat adierazten du: eraso, menderapena, kontrola, ...			
Ikaskideekin jostailuak trukutzen ditu			
Bakarrik jolasten du			
Ikaskideekin lankidetzan aritzen da			
Jolasteko orduan lagunak bilatzen ditu			
Objektuak kontrolik gabe erabiltzen ditu, etengabe aldatuz			
Ahozko komunikaziorik eza adierazten du			
Ikasleari atxikitzen zaio			
Irakaslearen deiei eta haren eskakizunei erantzuten die			
Zuzendutako jarduerak nahiago ditu			
Jarduera libreak nahiago ditu			
Esaten dena ulertzen du			
Soinuen bidez adierazten da			
Hitzen bidez adierazten da			
Esaldien bidez adierazten da			
Esfinterrak kontrolatzen ditu			

➤ **Ikasgelatik ateratzeko orduan**

ITEM-ak	BAI	EZ	BATZUETAN
Axolagabe			
Alai			
Asaldatuta			

Negarrez			
Ikasgelako objektuak eraman nahi ditu			
Bere familiari ikasgelan egin duena azaltzen die			
Ikaskideei helduta ateratzen da			